**Idazkari nagusiaren azken Maiatzaren Lehena.** Jose Elorrietak ETA gaitzetsi zuen, hitzaldiaren hasieran, bezperan Osalanen eta Lan Ministerioaren ordezkaritzan jarritako lehergailuengatik. Era berean, azken erahildakoa —Isaias Carrasco— langile bat izan dela gogoratu zuen. Idazkari nagusiak esan zuen “indarkeriaz baliatzen dira neoliberalak neurri gogorragoak ezartzeko, eta eztabaidaguneak bakantzeko, ez baitago kontrol demokratiko nahikorik”. Testuinguru horretan Elorrietak esan zuen “langile abertzaleak, klase eta nazio kontzien-tzia dutenak, estu-estu ibili behar dira bi hormaren artetik; batetik, interben-tzionismo militarista bultzaka dabil, eta bestetik, neoliberalismo basatia, gure kontura diruz betetzen ari dena, eta politikan zeharkako eragina duena, ez alferrik ditu eraginpean euskal administrazioak eta oposizio politikoaren zati handi bat”.

Elorrietaren esanetan, neoliberalak bai arlo publikoan, bai pribatuan daude, eta koordinazioan dihardute. “Neoliberalen lehen helburua lan-merkatua araugabetzea izan da, eta enplegu prekarioa egonkortu eta egitura-izaerakoa bihurtu. Gogoan izan enplegu prekarioa enplegu osoaren %40 dela”. “Hori langileei egindako lapurreta hutsa da” salatu zuen.

“Euskal neoliberalek arazo bakarra dute, eta da Euskal Herriko gehiengo sindikalak denen ikusgai jartzen dituela haien politikak, praktikak eta botearearekiko elkarkeria” esan zuen.

Administrazioak ELAren jokabideari ematen dion erantzuna gu “bide erditik kendu” nahi izatea da —esan zuen Elorrietak—, eta are gehiago ere “Gasteizko Gobernuan, eta zehazkiago PNVk eta EAk, estrategia bat taxutu dute, ikusmolde sindikal autonomoak eta kritikoak zigortzeko eta arrastoan sar-tzeko”. Adibideak ugariak dira: Lan Harremanen Kontseiluan eta Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean erabakiak hartzeko modua aldatu; Autonomia Erkidegoko BGAEaren araubidea; eta Lehiaren Euskal Epaitegiaren azken ekimena (EAEko Gobernuak sorturiko eta kontrolatutako administrazio-organoa).



“Sindikatuei espedientea ireki diete, EAEko merkataritza-langileek igande eta jai-egunetan atsedenaldia izan dezaten bultzatzeagatik. Ekimen horrek argiro erakusten digu noren zerbitzuan dihardute n, merkatalgune handien zerbitzuan, alegia” salatu zuen. “Lehiaren Epaitegiak sektoreko multinazionalen alde egin du, merkatu-kuota zabalagoak harrapa ditzaten. Ordutegia tresna bat besterik ez da denda txikiak alde batera uzteko eta itxiarazteko. Hori gertatu eta gero, baliteke igande eta jai-egunetan irekitzea ez izatea horren interesgarria” esan zuen.

“ELA beti egongo da ahaltsuen eta horien albokoen bestaldean” zioen Elorrietak, eta hara bildutako jendeari esan zion: “Bota egingo ditugu neoliberalak. Ez dakit noiz, baina botako ditugu”.

**Sinesgarritasuna.** Beste momentu batean, eta lehendakariaren “ibilbide-orria” dela-eta, Elorrietak esan zuen ELA kontsultaren aldekoa dela, baina “norabide hori ez da sinesgarria Gobernuak bere eguneroko zereginetan finantzabideak onartzen baditu, Estatuko etengabeko prestakuntzaren eredua hemen finkatzeko; oraingo eskumen-maila babesten ez badu; edo euskal erabakigunetik gertuen dauden antolakundeekin edo gizarte-sektoreekin adostasunik lantzen ez bada. Eta Gobernuak justu kontrakoa egin du, bere kudeaketan lehentasuna eman die ekonomia-eliteen interesei”.

## La clase trabajadora sigue en pie, con sus utopías y también con su agenda

Elorrietaren hitzaldiaren amaieran indarra eta kemena izateko esan zien bertan bildutakoei; egoera zaila bada ere, Euskal Herriko sindikalismoak osasun on samarra dauka, eta Gobernuaren inkesta berri baten emaitzak aipatu zituen horren frogagarri. “Gehiengo sindikalak erreibindikazio-kutsua hartu badu, eta emaitzak esandakoak badira; horrek esan nahi du gure mezua, gure konpromisoa eta gure ekintzabidea gero eta gehiago sartzen ari direla lan sindikala gehien behar duten esparruetan” esan zuen. “Kontua ez da egindakoaz asebete geratzea, gure mugak non dauden jakin behar dugu-eta; garrantzizkoa dena ausardia eta kemena izatea da, hartua dugun norabideari tinko eusteko”.

Elorrietak bere hitzaldia amaitu zuen esanez “langileok zutik jarraitzen dugu, geure utopiekin eta geure agendarekin”.

# FIESTA REIVINDICATIVA

ESTE AÑO EL BUEN TIEMPO SE ALIÓ CON LOS TRABAJADORES Y TRABAJADORAS CONTRIBUYENDO AL ÉXITO DE UNA JORNADA CARGADA DE COLORIDO Y REIVINDICACIÓN. EN LAS SIGUIENTES PÁGINAS, ALGUNAS DE LAS IMÁGENES DEL DÍA






**Escaparate de luchas sindicales.** El 1ª de mayo es una fecha inmejorable para que las empresas y sectores en conflicto saquen sus luchas a la calle. Pudimos ver a la gente de Lagunduz (en la foto, con José Elorrieta), Residencia Faustino Orbegozo, Ariznabarra, Telemarketing, Rubitec, Sarrió, Osakidetza... y la lista sigue porque, por desgracia, los neoliberales están por todas partes.
















**Esta es mi gente.** Sin gente, un sindicato no es nada. El 1º de Mayo se vió que ELA tienen mucha y buena gente. Veteranos, auténticos gran reserva, y gente jóven, de año, a la que se ven maneras... Rafa Oribe es uno de esos gran reserva, delegado histórico en la Diputación de Bizkaia, que se jubila este año. Zorionak eta eskerrik asko, Rafa, de parte de tus compañeras/os de sección sindical.













**Ironía y buen humor.** Nuestra gente es cada vez más ingeniosa a la hora de llamar la atención sobre sus reivindicaciones. Parodias, disfraces, consignas, bailes… todo vale para recabar la solidaridad del personal.



# COMIDA EN EL BEC





**Más y mejor.** El BEC es un recinto que da para todo: para las mesas corridas, los diferentes espacios infantiles, la pista de baile, el concurso de quesos… Lo que no cundió fue el tiempo. Un año más llegó la hora de la despedida casi sin darnos cuenta. Apenas pudimos dar unos bailables para bajar la ya tradicional comida del 1º de Mayo: patatas a la riojana, pollo y hojaldre con helado. El año que viene, más y mejor.

**Pasarlo como enanos.** Sin duda, en la fiesta de la tarde quienes más disfrutan son los más txikis. Hinchables, trenecito, goming, cochecitos a pedales, taller de txapas… Nada es bastante para las nuevas generaciones de ELA… Por cierto… ¡cuánto niño y niña había este año! El relevo está asegurado.

**Reportaje fotográfico:** Celia Heras, Gorka Quevedo y Nerea Ispizua

TRABAJADORES DE LA EMPRESA RUBITEC, DE LEZO, EN HUELGA INDEFINIDA PARA MEJORAR SUS CONDICIONES LABORALES

# Cuestión de dignidad




› NEREA ISPIZUA

**Algo más de la mitad de los trabajadores de la sección de máquinas de Rubitec,** empresa de Lezo dedicada a la inyección de caucho y silicona, se encuentran en huelga indefinida desde el pasado 31 de marzo en protesta por el incumplimiento sistemático del convenio. El objetivo final de estos trabajadores es, en definitiva, mejorar sus paupérrimas condiciones laborales. Marcelo León (delegado), Antonio Valera e Iñigo Lete, trabajadores en huelga, alertan de los incumplimientos reiterados de la legislación en materia de seguridad laboral, denuncian la utilización de mano de obra inmigrante “a precio de saldo” y critican la prepotencia y falta de voluntad negociadora de la dirección. Finalmente, estos trabajadores desvelan el negocio que Rubitec está haciendo a costa de la inserción laboral de personas con dificultades a través de la subcontrata Oarsotek.

## Rubitec-eko langileek bere lan baldintzak hobetu nahi dituzte, egungo baldintza ziztrinak hobetzearren

**-Estáis en huelga indefinida desde el pasado 31 de marzo. ¿Cuáles son las razones?**

-La dirección lleva años incumpliendo de manera sistemática el convenio actual. En teoría, nos aplican el estatal de Químicas, un convenio de miseria que, encima, se saltan a la torera. Con esta huelga pretendemos denunciar esta situación y dignificar las condiciones laborales de la plantilla.

**-¿Qué situaciones concretas estáis denunciando?**

-Las irregularidades no tienen fin. Existe fraude en la contratación, porque están cubriendo con ETTs puestos estructurales.

El tema de las horas extras es de escándalo. Se meten horas extra a manta, las pagan en negro, al precio que ellos quieren, y las utilizan para premiar o castigar. Como los salarios son tan bajos, meter horas es la única manera de que mucha gente lleve un salario medianamente digno a casa.

Respecto a los calendarios, se modifican arbitrariamente, y tampoco se respetan los descansos. Hay gente que trabaja más de 16 horas entre turno y horas, y vuelve a trabajar al turno siguiente.

**-El tema de la prevención, la seguridad y la salud laboral es especialmente grave.**

-En esta empresa ni ha existido ni existe prevención y salud laboral. Las denuncias son interminables. Desde cosas muy básicas, como que hay varios compañeros a los que no se les

## Ustiatzen aditua

**Rubitec-ek hainbat toki-administrazioren zorionak jaso ditu,** eta hori batere eredugarria izan gabe —ez lanaren ikuspuntutik, ezta gizarte-arlotik ere—; eta erakundeek ez dute inolako eragozpenik ikusi, Rubitec-ekin batera, Oarsotek eratzeko. Azpikontrata horren jarduera kautxuzko piezei bizarra kentzea da, eta helburu soziala hauxe: lan-merkatura sartzeko zailtasunak dituzten pertsonei sartzen laguntzea. Pertsona horiek, funtsean, emakume bananduak eta genero-indarkeria jasandakoak izaten dira.

Gaztenpresa Fundazioaren 2007 Jardunaldietan, sari bat eman zaio Oarsotek, S.L.ri; hori dela-eta, gizarte-interes handieneko enpresa-ekimen gisa hartua izan da.

**Lehen kolpean, badirudi Rubitec-ek** bere aladura arindu nahi izan duela Oarsotek sortuz, ez horixe. Esan beharra dago Rubitec-ek 12.000 euro jasotzen duela kontratatzen duen emakume bakoitzeko, zenbait kontratu lege-iruzurrean egiten duela, 4 eta 5 ordu bitartean lan egiten dutela, eta 450 euro inguru irabazten dutela. Diru-mordoa jaso-tzen du langile bakoitzeko. Eskualdeko udalek, bitartean, ez dakite, eta bakan batzuek ez dute jakin nahi, emakume horien gizarte-beharrizanen kontura enpresa hauek egiten duten negozioa.

ha hecho reconocimiento médico desde hace años, hasta las más graves.

Porque es muy grave, por ejemplo, que las mediciones realizadas hayan detectado nitroxaminas, una sustancia cancerígena por la que, en cumplimiento de la Ley de Salud Laboral, deberíamos tener 10 minutos de aseo antes de abandonar el centro de trabajo, y que ésto no se cumpla.

O que solicitemos un reconocimiento técnico de las máquinas, que el estudio realizado por una empresa externa determine que todas tienen riesgos, y que las pantallas de seguridad estén anuladas, en unos casos porque están estropeadas, y en otros, para trabajar más rápido. Que, en relación al citado estudio, Inspección haya dado plazos para solventar las irregularidades, y que 1 año después siga sin haber una máquina en condiciones.

**-Describís una situación de incumplimiento generalizado de todas las normas de seguridad. ¿Se está traduciendo en el número de accidentes?**

-Ha habido atrapamientos, pérdida de dedos, rotura de piernas... En unos casos la empresa los ha tapado y en otros no se han podido encubrir y constan como accidente laboral. Y eso, a pesar de que, en ocasiones, la empresa no comunica a la Mutua los accidentes.

**-¿Qué ha hecho Inspección ante vuestras denuncias?**

-En alguna ocasión ha multado a la empresa, y en otras ha puesto fecha para corregir las irregularidades; fecha que la empresa está incumpliendo sin que Inspección, de oficio, compruebe lo ordenado. Así que otra vez nos toca otra oleada de denuncias. En resumen, la actuación de la Inspección resulta decepcionante.

**-¿Cuál ha sido la respuesta de la dirección ante vuestras reivindicaciones?**

-En esta empresa hubo un delegado de CCOO durante muchos años que no sólo no consiguió mejoras sino que, incluso, firmó renuncias a derechos como el cuarto de hora del bocadillo para el turno de mañana y tarde.

Es decir, la empresa está acostumbrada a hacer y deshacer a su antojo, y no quiere un sindicato que le plante cara, que es lo que ocurre desde hace año y medio, cuando ELA gana las elecciones sindicales y nos marcamos como objetivo empezar a cambiar las cosas.

## Rubitec-eko Zuzendaritza aditua da etorkinak eta emakumeak ustiatzen, horiek baitira lan-kateako mailarik ahulenak

Esta es una empresa sin derechos sindicales: la dirección, a pesar del requirimiento del sindicato y a que está obligada por ley, no nos da las cuentas, no nos da la ficha técnica de todos los productos químicos que utilizamos, no nos da el libro de visitas de Inspección; en muchas ocasiones no nos da los contratos para firmarlos... Pasan de la representación sindical.

**-¿En qué se ha traducido esa postura de la empresa?**

-En este año y medio hemos puesto más de 40 denuncias ante Inspección de Trabajo sin que hayan cambiado las cosas. En un primer momento se ha dado una judicialización de las relaciones laborales, hasta que hemos decidido salir a la huelga.

Hay una situación de hartazgo total. No quieren dialogar ni cambiar nada. Habrá que obligarles a hacerlo.

**-Empezásteis la huelga el 31 de marzo. ¿Va para largo el conflicto?**

-Será todo lo largo que quiera la empresa. Nosotros estamos fuertes, unidos y tenemos el apoyo del sindicato, y no hablamos solo de la tranquilidad económica que te da la Caja de Resistencia...

Es la primera huelga que se realiza en esta empresa en sus 25 años de historia, y que tengan seguro que la hemos empezado para ganarla.

## Ekuadorkoa eta Euskal Herrikoa



**Marcelo Leon-ek urtebete eta erdi darama sindikatu- eta prebentzio-ordezkaria izaten,** eta Rubitec-en izan den lehenengo grebaren gidaria izan da. Marcelo Ekuadorkoa da, baina hori ez da traba izan haren lankideen-tzat, ordezkari hautatzeko orduan; ezta harentzat ere ardura sindikalak onartzerakoan. Enpresan 8 urte darama, eta gainerako lankideak bezalakoa da. Beste bat da lan egiteko, eta erreibindikazioak eskatzeko.

Marcelo orain dela 13 urte heldu zen Euskadira, etorkizun hobearen bila, Madrilen aldi labur batez egon ondoren. Hona etorrita, zenbait urte eman zuen Azkoitiko galdategi batean, eta Donostiako neska batekin ezkondu eta gero, Lezora joan zen bizitzera. Ordutik 8 urte igaro dira, Rubitec-en daraman denbora bera.

Marcelo gutarra da. Ekuador-ek erakartzen du, han dauzka senideak, eta urtean pare bat aldiz hara doa bisita egitera, baina bizimodua hemen du.

Orain dela urtebete eta erdi, ELAko ordezkari hautatu zutenean, Zuzendaritzak bere egin nahi izan zuen, eta txanda-buru postua eskaini zion, baina uko egin zien; beste behin ere, enpresak haren kategoria nominan islatzeko ezetza eman zionean, egina zuen bezala.

**Auskalo haren jatorriagatik den, edo haren kontzientzia sindikal eta klasekoagatik den,** baina sumindu egiten da Marcelo, orokorrean, enpresaburu askoren jokabidea ikustean, eta zehazkiago, Rubitek-en jokabidea ikustean; hau da, nola kateako mailarik ahulena, etorkinak, erabiltzen dituzten ikustean. "Orain, nitaz aparte, nire baldintzak normalak baitira, badira 2 Peruko, 2 Pakistango, eta 2 afrikar. Enpresak asteburu guztietan behartzen ditu lan egitera, 31 egun hileko, eta gainerakoek baino gutxiago kobratuz. Haiek esaten didate ez direla iristen soldatarekin, eta aparteko orduak sartu behar dituztela, baina ordu horiek guri baino merkeago ordaintzen dizkiete, eta diru beltzean. Ahulenaz baliatzen dira".

Langile horiek, jakina, ez dute greba egin. "Erabiltzen dituzte dumping soziala egiteko gainerako langileekiko" salatu du Marcelok. "Horrelako egoerei buelta eman behar diegu, enpresaburua beti saiatuko da banantzen eta irabazten". Guk kontra egin behar diogu saiakera horri, eta langileak batzen ahalegindu, haietako bakoitzaren jatorriari begiratu gabe".

JOSEBA VILLARREAL ETA LEIRE TXAKARTEGI AZKENALDIAN ASKATASUN SINDIKALAK JASO DITUEN ERASOETAZ MINTZO DIRA

# "Erasoei aurre egiteko modurik onena gure bideari eustea da"

› GORKA QUEVEDO




**Azkenaldian ugari dira askatasun sindikalak eragile ezberdinen aldetik jaso dituen erasoak.** Jazarpen horrek, funtsean, ekimen sindikala auzipetu eta kontrolatu nahi du. Ez dira ekimen soilak, eta gai juridikoaz aparte, ondorio politikoak atera behar dira derrigorrez. Euren irabaziak neurririk gabe handitzeko oztopo bilakatzen den oro zigortu eta ezabatu nahi dute ugazabek. Horretarako Administrazioaren eta hainbat epaileren ezinbesteko laguntza dute. Erasoen aurrean ELAk orain arte mantendu duen bideari eustearen garrantzia azpimarratzen du Joseba Villarrealek, ELAko negoziazio kolektiboko arduradunak.

**-Ez dira garai errazak langileen eskubideen alde borrokatzen dugunontzat. Zein da bizi dugun egoera?**

-Batetik greba eskubidearen murrizketarekin eta urraketarekin aurkitzen gara. Bestetik grebaren inguruan dagoen guztiaren kriminalizazioa dago; piketeen kriminalizazioa horren baitan sartu genezake. Lan baldintzak hobetzea aldarrikatzen duen langilea zigortzea erabaki dute. Noski, eraso hauek bereziki ELAri eragiten diote, errebindikazioa ekimen sindikalaren erdian kokatzea erabaki dugulako.

**-Greba eskubidearen murrizketa eta urraketa aipatzen duzu. Zertan egikaritzen da hau guztia?**

-Hainbat alorretatik aztertu liteke gaia. Batetik greba legala edo ilegala den. Egunetik egunera gero eta enpresa gehiagok jotzen dituzte grebak ilegaltzat. Bestetik greban dauden langileak ordezkatzen direla aurkitzen gara, bai enpresa bertako langileak grebalarien funtzioak egiten dituztelako edo bai Aldi Baterako Lan-Enpresen bidez jendea kontratatzen delako.

Zerbitzu minimoak arautzeko orduan ere hamaika arazo aurkitzen ditugu; gero eta gehiago dira abusuzko zerbitzu minimoak ezartzen diren kasuak, batez ere gizarte laguntza-zerbitzuen alorrean. Azkenik produkzioaren trasladoarekin aurkitzen gara, hitzaren zentzu zabalenean. Esaterako, Zumarragako Faustino Orbegozo edadetuen egoitzan Diputazioak hamaika lekualdatze egin ditu grebaren ondorioz; bertan zaintzen dituzten hamaika pertsonetaz mintzo gara kasu honetan. Zer gertatzen da? Hamaika pertsona eraman dituzte eta beste horrenbeste ekarriko dituzte, ala ez dituzte ekarriko? Batetik zerbitzu minimoen arazoa dago eta bestetik produkzioaren trasladoa. Kasu honetan pertsonetaz ari gara, eta hori ez da produkzioa, baina bai da lanaren lekualdatzea. Beste kasu batzuetan torlojuak egiten duen enpresetaz ariko ginateke, esaterako.

## Pese a los ataques, vamos a seguir adelante con nuestra actividad sindical

**-ELAk askotan salatu du hau guztia gizartearen zatirik ahulenaren aurkako estrategia baten parte dela, eta honek guztiak erantzule batzuk dituela. Zeintzuk izango lirateke?**

-Ez da erantzule bakarra, baina batez ere Administrazioa dago honen atzean, eta bereziki Jaurlaritzaren Lan Departamentua. Aspalditik ari dira patronalaren interesak defendatzen, euren interesak balira bezala. Zerbitzu minimoak eurak dekretatzen dituzte; langileen ordezkapen eta greba eskubidearen murrizketaren eta urraketaren aurrean ez dute ezer egiten. Guardianen kasua hor dago. Guk salatu genuen grebalariak Aldi Baterako Lan-Enpresa batetako langileengatik ordezkatzen zituztela. Horrelako kasuetan esaten digute: 'Ongi da, hemendik bi egunetara edo pasatuko gara'. Eta pasatzen direnerako baliteke greba amaituta egotea, eta guztia ezerezean gelditzea.

**-Sindikalisten eta langileen aurkako epaiketak eta isunak gero eta ohikoagoak dira...**

-Ekimen sindikalaren kriminalizazioa bilatzen dute. Urtez urte adostu diren erreforma ezberdinek langileen eskubideak murriztea izan dute helburu. Ez da egoera berria, baina azken urteetan areagotu egin da.

Sekulako isun pila ordaintzen ditugu kontzentrazioengatik eta greba ekinbideengatik. Gero eta normalagoa da delegatuei eta langileei greban zehar egindako piketeengatik zigor penalak eskatzea; gero eta normalagoa da ere Ertzantzarekin egon daitezkeen tirabiretan grebalariaren kontrako autoak egotea. Eta hor ñabardura bat egin behar dugu. Gure kexa Barne Sailarekin da, bera baita erantzule, ez autoa egin behar duen ertzaina.

## Necesitamos ser un sindicato fuerte y autónomo para seguir luchando por la gente trabajadora, nuestra gente

**-Zer lortu nahi dute hau guztiarekin?**

-Beldur egoera bat sortu nahi dute grebaren inguruan. Saiatzen ari dira askatasun eta ekintza sindikala mugatzeko eta baldintzatzeko bide berriak aurkitzen; Lehiaren Auzitegiarena horren lekuko da. Grebaren urraketa eta murrizketa ez da gauza berria, urteen poderioz eta egin diren erreforma guztiak eskubide hori behera botatzea izan dute helburu, eskubide eskasago baten bihurtuz.

**-Aurkezten ari zaren egoera ez da xamurra. Zer egin dezakegu?**

-Ekintza sindikala egiten jarraitu behar dugu, eta seguru aski ekintza sindikalaren adierazpenik gogorrena eta bortitzena, baita langileentzat ere, greba da; eta guk grebak egiten jarraitu behar dugu. Hori bai, gauzak ahalik eta ondoen egiten saiatu behar gara. Hau da, parekoari ahalik eta aitzakia gutxien eman horrelako gaietan sartzeko. Batzuetan ez dute aitzakiarik behar, baina guk aitzakia horiek kentzen saiatu behar gara. Grebarik gabeko ekintza sindikalak ez dauka fruiturik, edo behintzat ganorazko fruiturik. Horregatik ari dira oinarrizko eskubide hau murrizten eta arazoak sortzen.

**-ELAk denbora darama askatasun sindikalaren aurkako erasoak salatzen.**

-Agerikoa da greba eskubidearen aurkako murrizketa hauek ez direla bakarrik ELAren kontrakoak; baina, era berean egia da bereziki guri eragiten digula, greba guztietan gaudelako.

Nola egin aurre? Egunetik egunera sindikatu indartsuago bat sortu behar dugu, sindikatu aske eta librea, inoren baldintzarik gabekoa. Langile jendearengandik hurbil egon behar gara, langileok ditugun arazoak konpontzeko antolatu beharra daukagu.

Negoziazio kolektiboan gure jarrera erasokorra izan behar da. Jasotzen ditugun erasoei aurre egiten diegu, eta aurre egingo diegu. Okerren dagoen jendearen defentsarako bideak ez dauka atzera bueltarik, horregatik egunetik egunera gehiago izatea lortu behar dugu. Hortik aurrera? Egunero salatzen ditugu gure neoliberalen jarrerak, eta eraso hauek ere jarrera horren parte dira.

**-Ez dirudi Administrazioak hartutako bidea uzteko asmo handirik duenik...**

-Hori ez dago gure esku, baina egiten dutena egiten dutela gure bideari eutsi behar diogu, egin beharrekoari uko egin gabe. Piketeak kriminalizatzen badituzte erantzuna ezin da izan piketerik ez egitea, piketeak ahalik eta ondoen egitea baizik, piketeak egin behar direlako.

LEIRE TXAKARTEGI, RESPONSABLE DE LOS SERVICIOS JURÍDICOS

## "Pretenden limitar la actividad sindical"

**-Balneario de Orduña, Dornier, Hormigones y Canteras... Últimamente son muchos los casos y sentencias contra la libertad sindical ¿Qué está sucediendo?**

-Asistimos a un intento de criminalización de la actividad sindical y del derecho de huelga. El derecho de huelga no se protege como derecho fundamental. Por una parte está la patronal, que utiliza todos los instrumentos a su alcance, también las judiciales, para cercenar la acción sindical, en general. Pero también tenemos que denunciar la actitud beligerante de algunos jueces y fiscales en este tema. Salvo excepciones, la corriente mayoritaria en el ámbito judicial es la de restringir cada vez más los derechos sindicales.

En muchos casos, la fiscalía va más allá que la acusación particular, solicitando penas más graves que la propia patronal. Además, para el inicio de muchas actuaciones la fiscalía se basa en atestados policiales de la Ertzaintza como único elemento de contraste.

**-¿Cuál es el objetivo de estas sentencias?**

-Están imponiendo límites a la actividad sindical. Ante órdenes del Departamento de Interior que acotan o limitan las movilizaciones (ejemplo de la huelga del Balneario de Orduña, donde nos prohíben acercarnos más de 15 metros al hotel, o nos limitan el uso de la megafonía), estamos teniendo sentencias que ratifican dicha posición, limitando el derecho fundamental de reunión por supuestos riesgos de altercados o alteraciones de orden público, que no están, de ninguna forma, acreditados.

En la huelga se intenta restringir y criminalizar a los piquetes informativos. Por otra parte, otras actuaciones, como la sustitución de los trabajadores en huelga, no se persiguen, salvo en alguna excepción.

**-Tal vez el caso que más eco ha tenido sea el de Hormigones y Canteras.**

-Hormigones y Canteras es un ejemplo paradigmático de todo ésto. Primero habría que recordar el origen de los incidentes citados: un acuerdo en minoría en el convenio sectorial del 2002, que ELA desde su mayoría rechaza, e intenta seguir con la huelga. Los piquetes que se llevaron a cabo se desarrollaron dentro de los límites normales de la acción sindical y del derecho de información de los piquetes.

La fiscalía y CEBEK pedían la responsabilidad subsidiaria del sindicato por los supuestos daños causados por la actividad de los piquetes. Este intento suponía un salto cualitativo, ya que con este precedente el sindicato puede ser responsable de los daños causados en cualquier tipo de actividad sindical. Lo que tenemos que dejar claro es que la sentencia que ha puesto fin a este asunto exime de cualquier responsabilidad a ELA.

Se ha pretendido, asimismo, el encarcelamiento de nuestros militantes. Se pedían penas de 3 años y 6 meses de prisión. El arreglo económico ha pretendido que las dos personas imputadas no vayan a prisión. Evidentemente, ELA protege y no deja tirada a su gente.

# ¿Condenados a la silla de ruedas?

## LESIONADOS MEDULARES VASCOS PIDEN A OSAKIDETZA LA CREACIÓN DE UN CENTRO ESPECIALIZADO EN EUSKAL HERRIA

› NEREA ISPIZUA



De izquierda a derecha, Patxi Salbide y José María Munduate, Txubillo.

**Hace 2 años, Jose María Munduate, *Txubillo*,** histórico militante de ELA, sufrió un desgraciado accidente de monte. Tras mes y medio en la UVI, en coma inducido, los médicos comunicaron a la familia que no podían operarle y que quedaría tetrapléjico. El mundo se les cayó encima.

Con el paso de las semanas, Txubillo recuperó respiración y sensación en los brazos, y tras algunas vueltas y gestiones consiguió que Osakidetza le enviara al centro Guttman, en Badalona, supuestamente uno de los mejores centros de Europa para lesionados medulares. Allí permaneció durante 7 meses. Pidieron el alta voluntaria porque, tal como explica, “estuve 7 meses sin hacer nada; les llaman hospitales de rehabilitación pero, en realidad, lo que hacen es enseñarte a vivir en una silla de ruedas”.

Destrozado física y síquicamente, -“de Badalona vino muerto”, relata su familia- Txubillo regresó a su casa, a Gipuzkoa, y continuó con la rehabilitación en Amara-Berri. Según sus propias palabras, “estábamos desesperados”. Es en esa época cuando leen en el periódico una entrevista con Patxi Salbide en la que relataba su caso y cómo había sido operado con éxito en Portugal. Se pusieron en contacto con el doctor Reis, en Lisboa, y partieron a la capital lusa cargados de pruebas, informes médicos y esperanzas. Tres días después, el 13 de septiembre de 2007, le operaron.

**Euskadin ez dago zentrorik muineko lesioa dutenak hartzeko, ezta berebiziko tratamendu psikologikorik ere gaixo horientzat**

**Patxi Salbide** sufrió en 1997 un accidente de tráfico que le dejó postrado en una silla de ruedas, sin movilidad entre los pies y el pecho. Tenía 32 años. En julio de 2006 se sometió a una operación que le ha devuelto sensaciones que tenía ya olvidadas.

Los ocho años transcurridos entre el accidente y la operación no han sido, precisamente, un camino de rosas. Patxi se muestra agradecido a los profesionales que le han tratado a lo largo de estos años, pero no puede dejar de criticar “al sistema”. “Después del accidente, el sistema no busca mejorar tu calidad de vida; te dejan aparcado. Te dicen que a partir de los 7 ó 10 meses ya no hay posibilidad de mejora. La salida que te dan son los cuidados paliativos, la silla de ruedas, una asistencia concertada con el sector privado, de vez en cuando una revisión, y a partir de ahí, te queda buscarte la vida”, describe Patxi.

“Es increíble -continúa- que en Euskadi no exista un centro para lesionados medulares. Porque, no nos engañemos, lo que hay en Cruces y nada es lo mismo”. Tampoco hay tratamiento sicológico especializado para este tipo de pacientes. “Nuestro mal es físico y sicológico, y no tenemos respuesta a nada. En esta materia, la sani-

dad pública vasca está en pañales, y las buenas intenciones de los profesionales que nos tratan no son suficientes. Es duro decirlo, pero es así", afirma.

Patxi va aún más allá en la descripción del calvario que atraviesan los lesionados medulares en nuestro país, y Txubillo asiente: "Llega un momento en el que a las personas con problemas medulares nos ven casi exclusivamente como a un costo. Me han llegado a decir que el sistema no podía permitirse el lujo de dedicar más recursos a mi caso para, con el tiempo, a lo sumo, ser capaz de mover un musculito"."En primer lugar, el planteamiento es incorrecto, como se ha demostrado tras nuestras operaciones", asegura Patxi, "pero, aunque así hubiera sido, es inhumano no darse cuenta de que ese musculito puede ser vital para nosotros ". "Un ejemplo muy concreto -concluye su argumentación: no hace mucho he recuperado un musculito que me ha permitido eliminar el colector de orina. Ese musculito me ha devuelto unas dosis enormes de dignidad, y para la gente que vivimos atada a un silla de ruedas, la dignidad es algo muy importante", afirma.

## Lanean, sindikalgintzan eta bizitzan taldeak du indarra

**Mejoría ostensible**. Con 32 años y la sensación de que le habían robado la vida, Patxi no se resignó a consumirse en una silla de ruedas, a ser testigo involuntario de su propia decadencia. Buscaba una salida y la encontró. "A raíz de un documental del National Geographic me puse en contacto con un médico portugués con la esperanza de que pudiera hacer algo por mí. Ese primer intentó no prosperó, pero poco después, a través de los contactos que había hecho en Portugal, conocí el trabajo y las teorías del neurocirujano doctor Reis, todavía en fase experimental. Me puse en contacto con él, hablamos largo y tendido, y el 13 de julio de 2006 me operé", relata.

Han pasado ya casi 2 años de la operación para Patxi y sólo unos meses para Txubillo. ¿Tiempo suficiente para hacer valoraciones?

"La operación no es milagrosa, no es levántate y anda", destaca Patxi. "Nunca me prometieron que podría correr una maratón, pero sí que recuperaría funcionalidades; eso sí, con

## Egin diguten ebakuntza ez da mirarizkoa izan, baina dexente hobetu digu bizitza-kalitatea

paciencia, trabajo y con los años". Aquí es donde entra el método rehabilitador de Graça Mendes, fisioterapeuta jefe del doctor Reis. "De momento he recuperado sensaciones de frío o equilibrio, también vuelvo a sufrir agujetas tras los ejercicios de rehabilitación, soy capaz de hacer movimientos con las piernas y, sobre todo, puedo coger a mi hija en brazos", relata Patxi con orgullo.

Txubillo, por su parte, asegura que en pocos meses su mejoría ha sido espectacular. "A nivel digestivo ha habido una gran evolución, tengo sensaciones de frío y calor, mejor equilibrio, respiración... Hablo casi con normalidad, puedo cantar... Mi resistencia física sigue aumentando... Mi calidad de vida y la de la gente que me rodea ha mejorado muchísimo", resalta.

Esta mejora física va acompañada, también, de una mejora anímica. "La operación ha sido para nosotros una inyección de esperanza, de ganas de seguir luchando cada día, porque sabemos que podemos y vamos a mejorar", cuentan. Patxi, de hecho, ya no toma antidepresivos.

**Una pequeña fortuna.** Patxi y Txubillo han pagado la operación de su propio bolsillo. En torno a los 38.000 euros, incluyendo viajes y estancia. Una cifra importante, y más si tenemos en cuenta que se trata de dos familias de clase trabajadora.

Patxi ha reclamado a Osakidetza, en dos ocasiones, los gastos derivados de la operación. Rechazan su petición argumentando que no ha seguido el protocolo establecido. Esta decisión es muy criticada por ambos. "Osakidetza no sólo no ofrece un tratamiento público adecuado a los enfermos medulares sino que se niega a derivarnos a otros sistemas de salud en los que se practican técnicas que aquí no se realizan".

Esta decisión de Osakidetza contrasta, por otra parte, con el criterio de otros servicios de salud. "En estos momentos pacientes del estado español y de todo el mundo se están operando en Portugal, mientras nuestra sanidad pública cierra los ojos ante un tratamiento que podría cambiar la vida de muchas familias", denuncian.

**Fuerza para seguir luchando.** Una de las preguntas que me vienen a la garganta mientras escucho el testimonio de Txubillo y Patxi, y de sus familiares y amigos, es de dónde han sacado la fuerza para vivir y seguir luchando.

Txubillo no puede reprimir su vena sindicalista y contesta rápido y rotundo que "el colectivo es el que te da fuerza. Esto es mérito de la familia, del entorno, de la cuadrilla". "En el trabajo, en el sindicalismo y en la vida el colectivo nos hace fuertes", insiste.

"Siempre hay que intentar luchar, incluso en los peores momentos", rubrica Patxi. Y su mujer, presente durante toda la entrevista, asiente, al tiempo que comenta que con la operación ha recuperado a su marido, "al Patxi de antes del accidente".

## Menpeko egoeran bizi direnentzako diru-laguntzak, eta haien etxekoentzakoak, oso eskasak dira oraindik

**Testimonio de esperanza y reivindicación.** Txubillo y Patxi han decidido contar su experiencia por una doble razón. La primera, lanzar un mensaje de aliento a las personas que han sufrido y sufren una lesión medular, y darles a conocer una técnica quirúrgica novedosa que puede realizarse en personas de todas las edades que no tengan la médula seccionada, el 80% de los lesionados.

En segundo lugar, y no menos importante, quieren que Osakidetza se involucre. Y ese involucrarse pasa por crear un centro para lesionados medulares en Euskadi. "La sanidad pública debe asumir a nuestro colectivo y dar una alternativa real a lo que hay", reclaman.

Las mujeres de Txubillo y Patxi aprovechan la ocasión para reivindicar, también, más ayudas sociales para las personas dependientes y sus familias. "La ayuda institucional montada para personas dependientes no es real. Hay mucha gente que se queda fuera cuando han tenido que dejar de trabajar para cuidar a sus seres queridos", denuncian.

Mientras, Txubillo y Patxi lanzan al aire una pregunta que serviría para otro reportaje: ¿quién cuida a las cuidadoras...?




# TIBETEKO HERRIAK BERE IZENA ETA IZANAREN DEFENTSAN

› N.I. / B.F.A.

Estatu gabeko nazioek ez dute haizea alde. Hemen ere, antzera gertatzen da, demokraziaren itxura baten pean neurrira egin dituzte legeak "euskal iraultza" amatatzeko. Terrorismoaren aitzakiatan, baliabide guztiak dira zilegi ideologiagatik gogoko ez dituzten pertsonak eta elkarteak, guztiz zibilak eta demokratikoak izan arren, isilarazteko, legez kanpo uzteko, edo kartzelara sartzeko. "Terrorismoaren hazia dira" diote Estatu Espainolean. Batzuetan, badirudi Reagan edo Bush-en esanak errepikatzen dituztela; edo, denboran atzera eginez, Inkisizioaren garaiko suak eta Torquemadak berriro piztu direla.

Gatza eta piperra ukatzen dituen estatua ez da bat bakarra munduan




eta euskaldunok, zoritxarrez, ez gara herri bakarra hil ala biziko borroka horretan. Txinako armadak odoletan erreprimitu dituen Tibeteko manifestazioek gogora ekarri digute hango herriaren egoera latza. Bertako hizkuntza eta erlijioa ukatu ondoren, Tibeteko herria desagerrarazi nahi zuten ezkutuan. Oraingo honetan gaizki atera zaie, eta mundu osoko albisteetan agertu da pil-pilean. Olinpiar Jokoak aparteko aukera izan daitezke Tibeteko herriarentzat bere izena eta izana agertzeko mundu osoaren aurrean.

Joan den Aste Santuan, New Yorken, Tibetetik ihes egindako hainbat elkarte Nazio Batuen egoitzaren aurrean manifestatu ziren, errepresioa eta hilketak amaitzeko eskatuz. Berrehun manifestari eskas ziren, zaldiz eta oinez zihoazen polizien hesiez inguraturik, baina hainbestetan isilarazi dituzten eztarrietatik ateratako oihuak harritzekoak ziren.

**ELAk bere elkartasuna agertu dio Tibeteko herriari,** subiranotasunaren eta independentziaren alde daraman borroka dela-eta. Ikusi ahal izan ditugun Tibeteko liskar larriek argi eta garbi erakutsi digute hango herritarren borondatea zein den: 1949. urtearen aurreko estatusa berreskuratzea, txinatarren inbasio militarraren aurreko estatusa, alegia.

ELA harremanetan jarri da Tibeteko ordezkariekin, azken egunotan bisitaldia egin baitute Euskadin, eta bere elkartasuna eskaini die. Ildo horretatik, eta Maiatzaren Lehena dela-eta, Bilbon egin dugun agerraldi jendetsuan harrotasunez eraman dugu Tibeteko bandera, eta lau haizeetara aldarrikatu dugu Tibeteko Herriak, Euskal Herriak bezala, izena eta izana baduela, eta bizirik iraun nahi duela.

FRANQUEO CONCERTADO
NO 08/129